

# 'Omen'ek esan nahi omen duenaz

LARRAITZ ZUBELDIA ETA KEPA KORTA\*

ILCLI. UPV-EHU

## (On the alleged meaning of 'omen')

### Abstract

*The aim of this paper is to shed some light on the meaning and use of the Basque reportative particle 'omen'. We want to show that, contrary to what most Basque dictionaries and grammars suggest, beyond its reportative aspect, the meaning of 'omen' does not include neither (i) the evidential meaning that would make it synonymous with the particle 'bide' nor (ii) the expression of doubt or uncertainty about the truth of the proposition on which 'omen' operates. We will also try to account for the particular behavior of 'omen' as a reportative particle.*

*To deal with these issues, we will make use of basic tenets of contemporary semantics and pragmatics, distinguishing among the meaning of sentences containing 'omen', the content(s) of utterances of those sentences, and the eventual conversational implicatures generated by those utterances. We will also briefly compare our view with Faller's (2002) speech-act theoretic account of a similar particle in Cuzco Quechua.*

**Keywords:** *reportative particle, meaning, content, conversational implicature, illocutionary force, propositional content*

Euskararen auzo-erdaretan parekorik ez dutelako edo, euskararen bereizgarritzat edo bitxikeriatzat hartu izan dira 'omen', 'bide', 'ei', 'al', 'ote' eta antzeko partikulak. Era berean, zaila gertatu zaie partikula horien erdarazko ordain zuzena ematea erreferentzia gisa gure auzo-erdaretako bat edo ingelesa hartu duten hiztegi-gileei. Azterketa linguistikoa gramatikan edo, zehatzago esanda, sintaxian oinarritzen dutelako edo, euskal gramatikek ere ez dute asmatu partikula horien esanahia eta erabilera behar bezala azaltzen.

---

\* Batetik, eskerrak eman nahi dizkiegu GOGOAKo txostengile anonimoei eta ILCLIKo Hizkuntza eta Komunikazioa mintegiko ikerlariei, egin dizkiguten zuzenketengatik eta iradokizunengatik. Bestetik, aipatu nahiko genuke lehenengo egileak Eusko Jaurlaritzaren doktoradutza aurreko beka baten laguntza izan duela; bigarrenak, berriz, Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarena, HUM2006-11663/FISO ikerketa-proiektuaren bitartez.

Baina munduan badira halako partikulak eta gehiago dituzten hizkuntzak. Eta badira, baita ere, antzeko partikula horien esanahia eta erabilera azaltzen saiatzen diren hurbilketa semantiko eta pragmatikoak.<sup>1</sup>

‘Omen’ partikularen azterketara mugatuko gara lan honetan. Eta partikula horren esanahiaren eta erabilerearen alderdi batzuetara mugatu beharko dugu, nahi eta nahi ez; ikusiko dugunez, ugariak baitira askatu beharreko korapiloak eta egin beharreko hautu teorikoak. Nolanahi ere den, argi pixka bat egingo dugula espero dugu, ‘omen’-en semantikari eta pragmatikari dagokionez.

## 1. Sarrera

Erdi Aroko logikarien hitzak erabiliz, termino *sinkategorematikoa* da ‘omen’;<sup>2</sup> hots, ez du esanahirik bere horretan, beste hitz batzuei lotu gabe.<sup>3</sup> Horra, bada, beste zailtasun bat horren esanahia zehazki emateko, edo pareko partikularik ez duen beste hizkuntza batean ordaina emateko. Zailtasunak zailtasun, dena dela, hiru ezaugarri bereizi dituzte aztertzaileek ‘omen’-en esanahian:

- a. Erdaraz eman behar izatekotan, ‘*se dice (que)*’, ‘*parece (que)*’, ‘*on dit (que)*’, ‘*il paraît (que)*’-ren baliokidea da ‘omen’.
- b. Hiztunak<sup>4</sup> adierazten duen proposizioa besteren batek esana dela ematen du aditzera.
- c. Adierazten duen proposizioaren egiari buruzko ziurtasunik ez duela ematen du aditzera hiztunak.

(a) hiztegi elebidun eta gramatika gehienek jasotakoari dagokio; honakoek, besteak beste: Larramendik (1729, 307-308 or.), van Eysek (1873, 301 or.), Azkuek (1905-1906, 841 or.), Lafittek (1962, 47 or.),<sup>5</sup> Altunak (1976, 324 or.) eta Elhuyarrek (2000, 490 or.).

<sup>1</sup> Batzuk aipatzearen: Blassek (1989) nigeriar-kongoar sissala hizkuntzako ‘*re*’ partikula aztertzen du; Ifantidouk (2001) grezierako ‘*taha*’ partikula; Fallerrek (2002) cuzco kitxuako ‘*-si*’, ‘*-mi*’ eta ‘*-chá*’ partikulak eta McCready & Ogatak (2007) japonierako partikula batzuk, tartean ‘*rashii*’ eta ‘*soo-da*’.

<sup>2</sup> Komatxo sinpleak (‘’) adierazpenak aipatzeko eta ‘zuhurtzia’ komatxo gisa erabiliko ditugu, eta bikoitzak (‘‘’) esaldiak markatzeko. Proposizioak errepresentatzeko, berriz, LETRA LARRI TXIKIAK baliatuko ditugu.

<sup>3</sup> Alde batera uzten ari gara, jakina, ‘omen’ izena; ospea, entzute ona, izen ona adiera duena (ikus Sarasola 1996).

<sup>4</sup> ‘Hiztuna’ erabiliko dugu, baina uler bedi horrekin hiztuna, idazlea...; esaldiaren egilea, oro har, esaldia ahoz edo idatziz egin duena.

<sup>5</sup> Larramendiren lanari dagozkion orrialdeen erreferentziak 1979ko edizioarenak dira, Azkuere-  
nak 1984koak eta Lafitterenak 1979koak.

(b)k, berriz, Mitxelenarena eta Sarasolarena laburbiltzen du:

omen (...) II. (...) (Partikula, zeinaren bidez aditzera ematen den adierazten den informazioa beste pertsona edo iturri batzuetatik datorrela; aditz forma pertsonalaren aurre-aurrean jartzen da).<sup>6</sup> (...) (Mitxelena 1987, 244-245 or.)

1 omen. (XVII ea.). Hiztunak aditzera ematen duenaren berri entzunez (ez ikusiz) jakin duela adierazteko erabiltzen duen partikula. (Sarasola 1996, 614 or.)

Euskaltzaindiak, berriz, (c) gehitzen dio (b)ri, ziurtasun (gabezia) maileri buruzko ziurtasun handirik gabe:

(...) esaten duguna besteri entzuna diogula eta, beraz, ziurtasun neurria haren bizkar uzten dugula adierazteko. (Euskaltzaindia 1987, 502 or.)

Partikula horien [omen eta ei] modaltasunak bata bestearekin loturiko bi alderdi ditu: a) esaten dena besteri entzuna dela adierazten dute batetik, eta b) egia denentz ezin duela hiztunak erabat ziurtatu. (Euskaltzaindia 1987, 515 or.)

(...) adierazten duten modaltasunak bi aurpegi erakusten dizkigu: hiztunak esaten duena besteri entzuna dela eta esaten duen horren egia-tasunaz ez dagoela batere ziur. (Euskaltzaindia 1993, 446 or.)

Baina ondorio hori ez du Euskaltzaindiak bakarrik ateratzen. Izan ere, hasierako gramatikari batzuek ere zalantzazkotzat zuten 'omen' partikula. Larramendik (1854, 196 or.), esaterako, *adverbes de doute* delakoan azpian sartzen du, eta van Eysel (1873, 301 or.) *particule dubitative* esaten dio.

Labur esanda, honako hau argudiatu nahi dugu lan honetan:

- (I) (a) okerra da, '*parece que*' eta '*il paraît (que)*' ez baitira 'omen' en ordainak.
- (II) (b) zuzena da 'omen' en esanahiaren deskripzio gisa. Hala ere, argitu eta zehaztu egin beharra dago; hasteko besteen esanen berri emateko dauzkagun gainerako moduekin alderatuz (estilo zuzenarekin eta zehar estiloarekin, esaterako).
- (III) (c) okerra da 'omen' en esanahiaren deskripzio gisa. Hiztunak adieraz dezake ziurtasun gabezia bere esaldiaren bitartez, baina ez du halakorik adierazten derrigor. Izan ere, ziurtasun eta ziurgabetasun kontuak hiztunak bere esaldiarekin eragiten dituen *implikaturak* dira, esaldiaren

<sup>6</sup> *omen* (...) II. (...) ♦ (Partícula con la que se da a entender que la información que se expresa proviene de otras personas o fuentes; se coloca inmediatamente antes de la forma vbal. personal). (Mitxelena 1987, 244-245 or.)

eduki *pragmatikoak*, eta ez perpausaren esanahiaren edo *semantikaren* alderdiak.

Beraz, gure proposamenaren arabera, 'omen'ek duen esanahiaren eta erabileraren berri ematea izango da lan honen helburua. Horretarako, orain arte 'omen'i buruz esan diren gauza batzuk alboratu eta beste batzuk zehazten saiatuko gara. 'Omen'en ezaugarri ezagun batzuk emango ditugu lehenbizi (2. atala). Eta, hori egin ondoan, gure bideari ekingo diogu. Hasteko, ikusiko dugu bereak ez dituen ordainak eman dizkiotela 'omen'i hainbat hiztegiak; '*al parecer*', '*il paraît (que)*' gisakoak, 'omen'enak ez baina 'bide'renak direnak (3. atala). Horiek baztertuta, 4. atalean esango dugu Mitxelena eta Sarasolaren definizioen ildotik jarraitu beharra dagoela, gure iritzian, 'omen'en esanahia deskribatzeko. Nolanahi ere, zehaztapen batzuk eginda. Horretarako, semantika eta pragmatikako oinarriko kontzeptu batzuk argitu beharko ditugu, aurrena, honako bereizketa hauek eginez: esanahia vs. edukia (4.1. azpiatala) eta esandakoa vs. inplikaturakoa (4.2 azpiatala). Horiek zehaztuta, 'omen'dun perpausaren esanahiaren eta 'omen'dun perpausaren esaldien edukien berri emateko moduan izango gara (5. eta 6. ataletan, hurrenez hurren): «hiztuna ez den beste(ren) batek esana da *p*». Eta definizio hori gehiago zehazte aldera, 'esan du(te)'rekin alderatuko dugu 'omen'; baliabide bertsuak izan arren, aldeak baitituzte (5.1. azpiatala).

Garbi utzi nahi dugu horixe dela, gure ustez, 'omen'dun perpausen esanahia. Izan ere, zalantza adieraztearekin lotu izan dute hiztegiak eta gramatikari askok 'omen'. Eta, hain zuzen, erakutsi nahi dugu ez dela zuzena arrazoibide hori. Gure proposamenaren arabera, hiztunak adieraz dezake zalantza 'omen'dun perpausaren esaldi batekin, baina ziurtasun gabezia hori ez da 'omen'dun perpausaren esanahia, ezpada 'omen'dun esaldia eginez hiztunak eragin dezakeen inplikatura (7. atala). Horren ondoan, beste azterbide bat eztabaidatuko dugu; hizketa-ekintzen teoriaran oinarritua, hain zuzen, Falleren azterketari erreparatuta. Eta ikusiko dugu zeri egingo liokeen ekarpena 'omen'ek, ilokuzio indarrari edo proposizio edukiarri (8. atala). Bukatzeko, 'omen'en erabileraren ezaugarri berezi batzuk ekarriko ditugu: baieztutako proposizioa izan beharra dauka 'omen'dunak (9.1. atala), ezin da zeharkako hizketa-ekintzen berri eman 'omen'en bidez (9.2. atala), eta ezta inplikaturen berri ere (9.3.). Azkenik, ondorioak eta aurrera begirakoak bilduko ditugu.

## 2. 'Omen'en hainbat ezaugarri

Hasteko, 'omen'i buruzko hainbat ezaugarri emango dugu.

— Sintaktikoki *perpaus-partikula* da 'omen'. Perpausari txertatzen zaie; perpaus jokatuari zehazki, aditzaren lagun baita. Eta, hain zuzen, elementu

horrekintxe agertzen da; dela agerian, dela isilean.<sup>7</sup> Aditz sintagmako aditzaren gunean joaten da, beraz.

Baiezko perpausetan, aditz trinkoarekin haren aurrean, eta perifrastikoe-kin aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean.

- (1) Eguraldi ona omen dator.
- (2) Eguraldi ona etorriko omen da.

Ezezkoetan, berriz, trinkoetan haren aurrean, eta perifrastikoetan aditz laguntzailea aurreratuta, haren aurrean.

- (3) Ez omen dator eguraldi onik.
- (4) Ez omen da etorriko eguraldi onik.

Aditzik gabe nekez edukiko dugu, hortaz, 'omen'.

Eta ez dio eragiten perpausaren osagai bakarrari, ezpada perpaus bakunari bere osotasunean.

— Perpaus elkartuetan duen jokaerari erreparatuz gero, badirudi, juntaduran, perpaus batek 'omen' izateak ez duela esan nahi bestearen gaineko eragina ere baduenik.

- (5) Euria ari omen zuen eta etxean geratu dira.
- (6) Euria ari zuen eta etxean geratu omen dira.

Menderakuntzan, berriz, ez dago hain garbi. Perpaus nagusian agertzen bada 'omen', iduri du mendekoan ere izan dezakeela eragina partikulak.

- (7) Bihar etorriko omen da lantokira, bukatu zaizkio-eta oporrak.

Mendekoan agertzen bada, ordea, esango genuke hor bakarrik duela eragina, hor bukatzen dela bere eragin eremua.

- (8) Bihar etorriko da lantokira, bukatu omen zaizkio-eta oporrak.

— Adierazpen perpausari soilik atxiki dakieke 'omen'. Horietan bakarrik ager daiteke, ez du lekuri galde perpausetan (ez galdera zuzenetan, ez zehar galderetan), harridurazko perpausetan eta aginterazko perpausetan.<sup>8</sup> Hona hemen adibide bana, hurrenez hurren:

<sup>7</sup> Ager bailiteke aditza isilean dela, nahiz galdera baten erantzunean bakarrik dela, aditzik gabe. Hona hemen adibide bana, hurrenez hurren:

*Gara*-k jaso zuen berria eta arrazoia antolakuntzako erantzukizuna hartzeko jende falta omen. (*Berria*, 2006-02-25, 30 or.)

Bai omen.

Ez dugu kontuan hartuko Iparraldeko erabilera; 'omen' perpausaren bukaeran agertzea, hain zuzen: Berant ibili dira omen (Mitxelena 1987, 244-245 or.)

<sup>8</sup> Perpausaz ari gara hemen, perpaus motez, sintaxiaz alegia; eta ez perpaus horiekin egin daitekeenaz (ikus 8. atala, hizketa ekintzei buruzkoa). Jakina batek adieraz dezakeela, esate baterako, harridura «Bihar eguraldi ona egingo omen du!» esanez. Haatik, perpausak adierazpen perpausa izaten segitzen du.

- (9) Bihar ekarriko omen du liburua.  
 (10) \*Bihar ekarriko omen du liburua?  
 (11) \*Zer liburu ekarriko omen duen bihar!  
 (12) \*Ekar omen ezazu liburua bihar!

— Perpaus elkartuei dagokienez ere mugak ditu ‘omen’ek horietako zenbaitetan agertzeko. Gure azterketa semantikoa eta pragmatikoa izaki, horretan eragina duena bakarrik aipatuko dugu hemen; baldintzazko perpausa, hain zuzen. Baldintzazko ‘ba-’ partikulak ez du onartzen ‘omen’ aldamenean. Joatez gero, baldintzaren ondorioan joango da.

— Adierazpen perpausetan ager daiteke ‘omen’ ukazioaren aldamenean ere, baina *eragin eremu zabala* izango du beti ukazioarekiko (ikus Haddican 2007, 71-74 or.). Har dezagun, esate baterako, adierazpen perpaus simple bat:

- (13) Euria ari du.

Horren ukazioa, jakina, honakoa da:

- (14) Ez du euririk ari.

Eta perpaus horren esaldi baten berri emateko, erabil daiteke «omen»:

- (15) Ez omen du euririk ari.

‘Omen’ek ‘ez’ekiko eragin eremu zabala duela (eta, alderantziz, ‘ez’ek ‘omen’ekiko eragin estua duela) diogunean, honako hauxe besterik ez dugu esan nahi: (15)en edozein esaldik adierazten duen proposizioak honako itxura hau duela:

OMEN [EZ (EURIA ARI DU)]

eta sekula ez honako beste hau:

EZ [OMEN (EURIA ARI DU)].

‘Omen’en eta ‘ez’en arteko harreman berezi horrek izango du zeresanik hainbat kontu azaltzean, aurrerago ikusiko dugunez.

— Ezin da *iteratu* ‘omen’; esan nahi baita, ‘omen’ erabilita sortutako perpaus egiturari ezin zaio berriro ere ‘omen’ ezarri. Behin bakarrik ager daiteke aldiko.

- (16) \*Bihar eguraldi ona egingo omen du omen.

Perpaus horren bidez adierazi nahi dena eman liteke «Bihar eguraldi ona egingo omen duela esan dute» esanez; baina perpaus horretan ez ginateke ariko ‘omen’ iteratzen, ‘esan’ aditza sartu baitugu. ‘Iteratu’rekin esan nahi dugu aditz berari bitan ezartzea; hau da, perpaus bakunean behin baino gehi-  
 agotan agertzea.

### 3. 'Omen' eta 'bide' ez dira sinonimo

Hiztegi elebidunei (Azkue 1905-1906, Lhande 1926, Mugica 1981, besteak beste) kasu eginez gero, 'omen' eta 'bide' partikulak sinonimo direla esan beharko genuke.<sup>9</sup> Biek ala biek dute bai 'esan dute' bai 'dirudienez' esanahia, horien arabera. Hala ere, trataera desberdina ematen diete biei, esate baterako, Mitxelenak eta Sarasolak. Mitxelenak ez du 'bide'ren esanahirik definitzen ('omen'ena bai). Sarasolak, berriz, bi interpretaziotarako bidea ematen du berearekin, «Ik. omen» dioela kontuan hartuta: uler liteke 'omen'en esanahi bera izan daitekeela 'bide'ren esanahietako bat, edo baliokide izan daitezkeela.

2 bide. (1545). Dagokion aditzari «dirudienez» ñabardura ezartzen dion hitza. Laguntzailearen (edo adizki trinkoaren) ezkerrean jartzen da. Ik. omen. (...) (Sarasola 1996, 144 or.)

Gure ustez, ordea, 'omen'ek ez du 'dirudienez'en zentzurik; eta horretxek desberdintzen ditu, preseski, 'omen' eta 'bide'. Har dezagun honako egoera hau horren erakusgarri: lana bukatu, eta kalera atera dira Kepa eta Larraitz. Lurra bustita dagoela ikusita, honakoa esan dio Kepak Larraitzi:

(17) «Euria egin du, sobrare.»

Egoera horretan, baliokide izango lirateke «Euria egin du, itxura denez», «Ematen du euria egin duela», «Badirudi euria egin duela» eta baita normalean Kepak esango ez lukeen «Euria egin bide du» ere. Baina ez luke esango inola ere «Euria egin omen du», nola eta inork euriari buruzko ezer esan ez dion. Orduan soilik erabiliko luke 'omen'; horixe bera adieraziz, hain zuzen: besteren batek esan diola euria ari duela. Egoera horretan esan ahal izango luke (17) ere, gure iritzian; nahiz eta oraintxe aipatutako xehetasuna galduko lukeen.

Gaude ederki erakusten duela honako beste adibide honek ere 'omen'en eta 'bide'ren arteko desberdintasuna:

(18) «Normaltzen ari bide gara: %25en inguruan omen dabil herri hazietako normaltasuna.» (Torrealdai 1977)

Gure ustez, «herri hazietako normaltasuna %25en inguruan dabil» proposizioa adierazten duen esaldia entzun/irakurri egin du Torrealdai. «Normaltzen ari gara» ere besteren bati entzuna/irakurria izan daiteke, baina ez du zehazten hala den edo entzun/irakurri, neurtu, aztertu edo ikusitakotik berak atera duen ondorioa ote den. Helduko diogu aurreragoko lanetan

<sup>9</sup> Gainera, jokabide sintaktiko bera dute, jakina denez.

bereizketa horri,<sup>10</sup> hari mutur asko baitauka 'bide'k ere, 'omen' en antzera. Alabaina, honako hauxe esan nahiko genuke auzi horri buruz, lan honetan: 'omen'ek ez du 'dirudienez' esan nahi; eta, beraz, 'omen' eta 'bide' ez dira sinonimo.

#### 4. Besteek esana

Esan bezala, 'omen' en esanahiari buruzko gure ikuspegia gertu dago Mitxelenak eta Sarasolak emandakoetatik. Zehaztu egin beharra dauzkagu, hala ere. Mitxelenak dio 'omen'ekin aditzera ematen dela adierazten den informazioa beste pertsona edo iturri batzuek emana dela. Sarasolak, berriz, esaten digu aditzera ematen duenaren berri entzunez (ez ikusiz) jakin duela adierazteko erabiltzen duela hiztunak aztergai dugun partikula.

Honakoa esango genuke biak alderatuta:

- 'Aditzera eman' eta 'adierazi' aditzak justu alderantziz erabiltzen dituzte. 'Omen'ekin zerbait aditzera eman egiten da Mitxelenaren arabera; zerbait adierazi, berriz, Sarasolaren ustez. Eta zerbait hori adierazitako informazioari buruzkoa da, Mitxelenaren iritzian; aditzera ematen duenari buruzkoa, aldiz, Sarasolaren arabera.
- Nolanahi ere, bi-biek bereizten dituzte, nolabait esatearren, alde batetik, 'omen' en 'azpiko' edukia, eta, bestetik, eduki horri 'omen'ek eranstean dion efektua edo ñabardura.

Lehenengo puntuari dagokionez, argitu behar da zer egiten den 'omen' dun esaldi bat egiten denean: zerbait *esan* egiten da? Zerbait *adierazi*? Zerbait *aditzera eman*? Semantikako eta pragmatikako tradizioetan esanahi desberdina dute hirurek termino tekniko gisa, nahiz eta askotan argiagoak diren elkarren arteko aldeei erreparatuta kontzeptuen definizioei euren begiratuta baino; bereziki 'omen' en kasuan.

Bigarrenak, berriz, hizketa-ekintzen teoriako<sup>11</sup> bereizketa bat dakarkigu gogora, honela adieraziko litzatekeena: hizketa-ekintza orotan, bi gauza bereizten dira haren ilokuzio alderdiari dagokionez; ilokuzio indarra edo hizketa-ekintzarekin zer egiten den (baieztu, hitz eman, eskatu, zigortu, etab.), batetik, eta proposizio edukia edo ekintzaren asetze baldintzak (egibaldintzak, baierakoen kasuan), bestetik. Honako galdera hau sortzen da, orduan: zeri egiten dio ekarpena 'omen'ek, ilokuzio indarrari edo egibaldintzei? Lehena

<sup>10</sup> Esan beharra daukagu 'omen' i buruzko gure intuizioak bai, baina 'bide' ri buruzkoak ez direla oso sendoak. Izan ere, gure azpieuskalkietan ez da erabiltzen 'bide' partikula, geroztik ikasia dugu.

<sup>11</sup> 8. atalean emango dugu hizketa-ekintzen teoriari buruzko xehetasun gehiago.



erabakiz gero, oinarrian perpaus bera hartuta, 'omen'dun eta 'omen'ik gabeko bi esaldik ez lukete egibaldintzetan (edo asetze baldintzetan) desberdintasunik; gauza-egoera berek egingo lituzkete egiazko ala faltsu (ase ala asegabeko). Ilokuzio indarra aldatuko litzateke, beraz, baiezenetik iradokizunera edo aierura edo dena delakora. Bigarrena hautatuz gero, berriz, egibaldintza edo asetze baldintzetan legoke desberdintasuna; eta ilokuzio indarra bere horretan geratuko litzateke.

Teorikoki ezin da baztertu hirugarren aukera bat ere: adierazpen baten esaldiak biei egitea ekarpena, proposizio edukiari *eta* ilokuzio indarrari. Nolanahi dela, ez dugu uste halakorik gertatzen denik 'omen'ekin, eta ez dugu hala jokatzeko aukera duen elementuren bat aipatzen duen inolako lanen berririk ere. Horregatik, beste baterako utziko dugu aukera hori eztabaidatzea.

Lehenengo puntutik hasiko gara. Baina, hori argitzeko, semantikako eta pragmatikako hainbat funtsezko kontzeptu argitu behar dugu, aurrez.

#### 4.1. Perpausa eta esaldia: esanahia eta edukia

Gaur egungo pragmatikak hizkuntzalaritzari egin dion ekarpenen bat azpimarratzekotan, honako hau aipa genezake: *perpausak* (hizkuntza jakin bateko adierazpenez osatutako kate gramatikal osoak)<sup>12</sup> ez du berez egibaldintzarik; alegia, perpausak ez du bere kabuz proposiziorik adierazten, ez dauka edukirik. *Esaldiak* (perpaus bat erabiltzeko ekintzak) ditu egibaldintzak, eta *proposizio* baten bidez irudikatzen dira egibaldintza horiek. Esaldiak proposizio hori *adierazten* duela esaten da. Edo, nahiago bada, esaldia egiten duen hiztunak adierazten du proposizio hori. Esaldiaren *edukia* esaten zaio proposizio horri. Honako ikasgai nagusia damaigu David Kaplanek<sup>13</sup> (1989): perpausaren esanahia eta esaldiaren edukia bereizi beharra daude. Hartu, adibidez, honako perpaus hau:

(19) Ni goierritarra naiz.

Euskarazko perpaus gisa, esanahia dauka (19)k, euskaldun guztiok ezagutzen duguna hizkuntza horren hiztun garen neurrian; hots, 'ni', 'goierritar', '-a' eta 'naiz'en esanahien eta horien konposizio-erregelen jakitun garen heinean. Hitzak (edo partikulak, edo hizkiak) kodetzen duen informazioari esaten zaio hitzaren (edo partikularen, edo hizkiaren) *esanahia*.

<sup>12</sup> Jakina, ez da batere erraza 'perpaus' nozioa definitzea, baina nahikoa dugu hemen gramatikan erabili ohi den (gutxi gorabeherako) 'definizioa' onartzea.

<sup>13</sup> Kaplanek 'karaktere' esaten dio guk hemen 'esanahi' deitu diogunari. Testuingurutzat, aldiz, honako laukote hau hartzen du, indexikoen logikaren atalean: esaldiaren hiztuna, denbora, espazioa eta mundua. Ohar informaletan, 'erakustaldiari' eta hiztunaren asmoari ere egiten die leku testuinguruan. Baina horrek ez dauka eraginik gure eztabaidan.

Orain, (19)ren esanahia jakitea ez da nahikoa hiztun batek perpaus hori erabiliz adierazten duen proposizioa mugatzeko; hau da, esaldiaren egibaldintzak mugatzeko. Kepak

(19') «Ni goierritarra naiz»

esaldia egiten duenean,<sup>14</sup> Kepa bera da esaldiaren edukiaren osagaietako bat. Semantika formalean erabili ohi duten hizkeran jarrita, Kepak egindako esaldiak adierazitako proposizioa egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin (*bba*) Kepa goierritarra bada. Eta egiazkoa da, Kepa goierritarra baita. Baina Larraitzek

(19'') «Ni goierritarra naiz»

esaldia egiten duenean, bestelakoa da proposizioa. Perpausaren esanahia berbera izan arren, esaldia beste bat da, eta egibaldintzak ere desberdinak. Esaldiaren edukia Larraitzi buruzkoa da, eta egiazkoa da *bba* Larraitz goierritarra bada. Goierritartasuna jaiotzez soilik edo sentimenduz erabakitzen ote den alde batera utzita (goierritarra eta donostiarra omen da Larraitz), argi dago eduki desberdinak adierazten dituztela Keparen eta Larraitzen esaldiek; nahiz eta perpaus bera darabilten biek.

Hortaz, esaldien edukia mugatzeko garaian, perpausaren esanahiaren ekarpena eta esaldiaren testuinguruaren ekarpena bereizi beharra dauzkagu. Hori da, besteak beste, Kaplanek (1989) semantikari eta pragmatikari egindako ekarpen nagusietakoa, indexiko eta erakusleei buruzko bere saiakera ezagunean.

Gure aztergaira itzulita ere, bi gauza bereizi beharra dauzkagu «omen»en esanahiari eta erabilerari dagokienez. Batetik, esanahia, kodetutako informazioa, testuinguruaren informaziorik gabe euskara jakinda ezagutzen duguna. Eta, bestetik, edukia; esan nahi baita, perpaus «omen»dunaren esaldiak *adierazten duen* proposizioa, eta proposizio horri «omen»ek egiten dion ekarpena.

#### 4.2. Esandakoa (baieztutakoa) eta implikatutakoa

Pragmatikak egindako bereizketarik ezagunena, ordea, ez da Kaplanen hori izango, seguru asko; Griceri zor zaion honako beste hau baizik: esaldi batean bereizi beharra daude '*esandakoa*', batetik, eta '*implikatutakoa*', bestetik. Gure helburuetarako, baliokideak lirateke, gutxi gorabehera, '*esandakoa*' eta '*adierazitako proposizioa*'. Baliokideak, baita ere, '*implikatutakoa*' eta '*hiztunak aditzera ematen duena*'. Baina azal dezagun, hasteko, Griceren bereizketa.

<sup>14</sup> Euskarazko 'esan' ingelesezko 'say' baino oraindik anbiguoagoa da, eta 'say' eta 'utter' ('*what is said*' eta '*utterance*') bereizi beharra dauzkagunez, darabiltzagu 'esan' eta 'esandakoa' batetik, eta 'esaldia egin' eta 'esaldi', bestetik.

Griceren (1967/1989, 24 or.) beraren adibide bat hartuko dugu. C lagunari buruz ari dira hizketan A eta B. C banketxe batean lanean hasi berri da:

- (20) A: «Zer moduz dabil C lanean?»  
 B: «Oraindik ez dute kartzelan sartu.»

Zer esan du B-k? Erabilitako perpausaren esanahiari eta testuinguruari erreparatuta, B-k adierazitako proposizioa egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin C kartzelan sartu ez badute lan berrian hasi denetik esaldiaren denbora arte. Eman dezagun hori dela B-k egindako esaldiak adierazitako proposizioa; edo Griceren, eta ondotik beste askoren, hitzetan B-k *esandakoa*. Orain, garbi dago B-k bere esaldiaren bidez *esandakoak* ez duela esaldi horren bidez komunikatutako guztia biltzen. Garbi dago B-k, esan duena esanez, beste zerbait ere eman diola aditzera A-ri: C-k ez duela oraindik lapurretarik egin, bera ezagututa espero zitekeen bezala; edo, egin badu, ez dutela oraindik harrapatu, edo antzeko zerbait. Testuingurua hobeto ezagutu gabe, ezin jakin zehatz zer eman nahi izan dion aditzera B-k A-ri. Baliteke A-k berak ere zalantzak izatea, eta galdetzea «Zer esan nahi duzu horrekin?», baina baliteke ondo asko ulertu izana ere. Dena dela, B-k iradokitakoa, edo aditzera emandakoa, oso desberdina da B-k esandakotik. *Esandakoa* eta *inplikaturak* bereizi beharra daude esaldiaren edukietan, horixe da Griceren lezioa.

Esandakoa mugatzeko, Griceren arabera, desanbiguatu egin behar da erabilitako perpausa, behar izanez gero; eta, horrez gain, finkatu egin behar dira adierazpen indexikoen eta testuinguruaren mendeko bestelako adierazpenen erreferentziak. Esandakoa, beraz, ez da mugatzen perpausaren esanahi konbentzionalera, baina horri lotuta dago. Horregatik, hasteko, esaldiaren edukiarekin parekatzen da esandakoa, eta ez karakterearekin edo esanahiarekin; hiztunak adierazitako proposizioarekin, alegia, eta ez perpausaren esanahi hutsarekin. Horrez gainera, esandakoa edo adierazitako proposizioa bereizi egin behar da, berebat, esaldia eginez hiztunak *inplikaturak* proposiziotik (edo proposizioetatik). Izan ere, *elkarrizketa inplikaturak* ez daude perpausaren esanahi konbentzionalari nahiz esandako proposizioari lotuta, esandakoa esan izanari baizik.<sup>15</sup>

Horren ondoan, hainbat bereizgarri dituzte inplikaturek. Honako hauxe horien artean garrantzitsuena:

*Ezabagarritasuna*. Inplikaturak ezabagarriak dira. Hiztunak esplizituki ezaba edo bertan behera utz ditzake,  $p$  proposizio bat esatean, horrek lekarkeen  $q$  inplikatura arazorik gabe ukatuz; «baina ez dut  $q$  esan nahi izan» bezalako zerbait esanda. Edo inplizituki ezaba daitezke, esaldiaren testuingurua aldatuta.

<sup>15</sup> Salbuespen bat egiten du Gricek. Bere ustez, badaude inplikatura konbentzionalak ere; esan nahi baita, adierazpen jakin batzuen esanahi konbentzionalak eragindako inplikaturak. Guk, ordea, ez ditugu kontuan hartuko lan honetan.

Oro har, ‘test’ gisa erabil daiteke ezabagarritasuna, esandakoa eta inplikaturak bereizteko.<sup>16</sup>

Nolanahi ere den, inplikaturen eta esandakoaren arteko mugak uste baino lausoagoak izanagatik, adostasun zabala dago Gricek ezarritako bereizketa nagusi horren gainean. Desadostasunak sortzen dira inplikaturen artean Gricek bereizitako kategoriei buruz (inplikatura konbentzionalak, elkarrizketa inplikatura orokortuak...). 7. eta 9. ataletan hitz egingo dugu inplikaturez.

Orain, beraz, oinarrizko bereizketa horiek eginda, iruditzen zaigu ‘omen’-en esanahiari eta erabilerari buruz zehatzago hitz egiteko moduan garela.

## 5. ‘Omen’-en esanahia

‘Omen’-en esanahiaz ari garenean, hortaz, kodetzen duen informazioaz ari gara; testuinguru orotatik kanpo, euskara dakigun heinean, ematen digun informazioaz. Baina zehaztapen bat egin beharrean gara. Izan ere, partikula izaki, ‘omen’-ek ez du berezko esanahirik perpausetik kanpo; termino *sin-kategorematikoa* da. Hori dela eta, ‘omen’-ek bere kabuz duen esanahia ez baina ‘omen’-dun perpausen esanahia aztertu beharko dugu.

Izan bitez  $S$  perpausa,  $p$  proposizioa ( $S$ -ren esaldiak adierazten duena) eta  $S_{omen}$  ‘omen’-en perpausa. Horiek horrela, honako hau da  $S_{omen}$  perpausaren esanahia, gure proposamenaren arabera:

( $M-S_{omen}$ ) HIZTUNA EZ DEN BESTE(REN) BATEK ESANA DA  $p$  (edo OMEN- $p$ ).

Egin ditzagun zehaztapen batzuk aurrera jo aurretik:

- ( $M-S_{omen}$ ) ez da ‘ $S_{omen}$ ’-ren hiztunak *esaten duena* edo *adierazten duen* proposizioa. Proposizio bat da, esaldi baten egibaldintzak dira, baina ‘ $S_{omen}$ ’-ren esaldi guztiek partekatzen dituzten egibaldintzak;<sup>17</sup> perpaus horren esaldi bat egin izanak eta erabilitako perpausaren esanahiak soilik damaigutena.
- Testuinguruaren informazio gehiagorik gabe, eta ‘omen’ iteratzerik ez dagoenez, ezin dugu argitu  $p$  bera ( $M-S_{omen}$ ) tankerako proposizioa den ala ez; alegia, jatorrizko hiztunak erabilitako perpausa ‘omen’-duna zen ala ez.

<sup>16</sup> Badira ezabagarritasuna inplikaturena soilik ez, pragmatikoki mugatutako osagai guztien ezaugarria dela diotenak. Baina eztabaida horrek (ikus Korta 1999) ez dio eragiten zuzenean hemen eztabaidatuko dugunari.

<sup>17</sup> Korta eta Perryren ‘Pragmatika Kritikoa’-ren arabera, ‘erreflexiboa’ da proposizio hori, euren terminologiari segituz, hiztunari berari erreferentzia egiten diolako bere egibaldintzetan; eta esaldiaren ‘eduki semantiko minimoa’ litzateke. Ikus, adibidez, Korta & Perry (2007).

- ‘Esana da’ diogunean, Griceren goiko zentzuan esaten dugu; hark baino hertsiago ulertuta, dena dela. Izan ere, adierazpen perpausetara mugatuta baikaude, *baiezturen* baliokidetzat hartu behar da.
- Beste batek esandako *p* hori proposizioa da, hiztunak bere hitzetan dakarrena, indexikoak egokituta. Gehienetan, hiztunaren hizketako unera eta bere ikuspegira egokitu behar izaten dira izenordainak eta denbora markak.

Alde horretatik, ‘omen’ urrundu egiten da tankerako baliabide dituen komatxoetatik. Komatxoekin ere beste batek esana dakargu, baina hitzez hitz; ‘omen’ekin, berriz, hiztunarengana egokituta. Alabaina, nahas edo tarteka litezke biak, *mixed quotation* delakoa sortuz; nahasketa gramatikaren aldetik egokia denean betiere. Halakoetan, ‘zuhurtzia komatxoak’ izan ohi dira batzuetan. Kasu horietan, hiztunak garbi utzi nahi izaten du beste baten hitzak ekarri dituela, eta ez bereak; bestearen hitz zehatza(k) dakar(tza). Har dezagun (19’) esaldia berriro ere. Komatxoak erabiltzen dira, estilo zuzenean, horren berri emateko:

(21) Kepak esan du: «Ni goierritarra naiz».

Horiek lirateke jatorrizko hiztunak esandako hitzak, estilo zuzenean.

Honela emango genuke ‘omen’ekin:

(22) «Kepa goierritarra omen da.»

Hiztunak egokitu egin ditu Keparen hitzak, ‘ni’ izenordainaren lekuan ‘Kepa’ sartu du, eta ‘naiz’ aditzaren ordeaz ‘da’ jarri.

Baina badirudi ez dagoela eragozpenik biak tartekatzeke ere:

(23) «Kepa ‘goierritarra’ omen da.»

Baliteke hiztunak garbi utzi nahi izatea Kepak berak esan duela hala, nahiz eta bere ustez jada ez den oso goierritarra, urte asko baitira han bizi ez dela. Kasu horretan, zuhurtzia komatxoak direla esango genuke.

### 5.1. ‘Omen’ eta ‘esan du(te)’

Ezaugarri horiengatik guztiengatik, ‘esan du(te)’ren esanahiaren parekotasun har daiteke ‘omen’ena. Askotan parafraasi horren bidez ematen dugu ‘omen’dun perpausen esanahia. Badirudi, lehenengo begiratuan, baliokideak direla bi egiturak, gauza bera adierazteko erabil genitzakeela. Haatik, desberdintasun garrantzitsuak dituzte partikulak eta ‘esan du(te) + -ela’ egiturak; kontuan hartzekoak, inondik ere.

— Ukazioarekiko eragin eremu zabala nahiz estua izan dezake ‘esan du(te) + -ela’ egiturak. ‘Omen’en ezaugarriez aritu garenean, esan dugu ezin izan dezakeela ukazioarekiko eragin eremu estua, eragin eremu zabala du beti. Lot

dakieke ezezko perpausei, baina ezin du izan horiekiko eragin eremu zabala. 'Esan du(te)'k, berriz, izan dezake eragin eremu estua ukazioarekiko; esan nahi baita, bi eragin eremuak izan ditzake ukazioarekiko, estua eta zabala. Eman dezagun adibide bana esaten ari garena argitze aldera:

(24) «Esan dute bihar ez duela eguraldi ona egingo.»

Ukazioarekiko eragin eremu zabala du etsenplu horretan 'esan dute' aditzak.

Hurrengoan, ostera, ukazioak du aditzarekiko eragin eremu zabala:

(25) «Ez dute esan bihar eguraldi ona egingo duenik.»

'Omen'ekin, berriz, ez dugu bigarren aukerarik, eragin eremu zabala soilik izan dezake ukazioarekiko:

(26) «Bihar ez omen du eguraldi ona egingo.»

(27) \*«Bihar eguraldi ona egingo omen ez du.»

Desberdin jokatzen dute, hortaz, bi elementuek ukazioari dagokionez.

— Itera daiteke 'esan du(te) + -ela' egitura, 'omen' ez bezala. Adibidez:

(28) «Esan dute esan dutela bihar eguraldi ona egingo duela.»

Edo 'omen'ekin batera ager daiteke:

(29) «Esan dute bihar eguraldi ona egingo omen duela.»

— 'Omen'ek ez bezala, 'esan du(te)' aditzak artikulatu egiten du jatorrizko hiztunaren argumentua, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan.

— Eta, horren ondorioz, 'omen'ek ez du tokirik uzten jatorrizko hiztuna eta 'omen'dun esaldiaren hiztuna bat bera izateko. Kepari ez dio ezerk galarratzen «Ordiziarra naizela esaten dut» esatea, baina ezin du esan «Ordiziarra omen naiz», jatorrizko hiztuna bera izanda.

Saiatuko gara gauza horiek xehetzen hurrengo ataletan.

Ez dira, hortaz, erabat baliokideak bi elementuak. Ezta euskarazko balizko bestelako ordainak ere ('diotenez' edo '-en arabera', esaterako), edo hasieran aipatutako auzo erdaretako eta beste hizkuntza batzuetako parafraziak ('*dicen (que)*', '*se dice (que)*', '*il paraît (que)*'...). Ezin bil ditzakete 'omen'en ezaugarri guztiak.<sup>18</sup> Auzo erdarek nahitaezkoa dute parafrazien bidez ematea 'omen'en edukia, ez baitute gisa horretako partikularik; eta, jakina, ezin eman 'omen'en pare-pareko baliokidea, haren ezaugarri guztiak dituen. Horrek, noski, eragina du 'omen'en erabileran, ez dituen ñabardurak eransten baitzaizkio asko-

<sup>18</sup> Interesgarria litzateke lan ildo hori; testuetan behatzea hala 'omen'i egiten dizkioten itzulpenak, nola 'omen' zeren itzulpen gisa darabilten.

tan; zalantza, esate baterako. Baina dagoeneko aurreratu dugun bezala (7. atalean ikusiko dugu zehatzago), zalantza ez da ‘omen’dun perpausaren esanahiaren baitakoa, ezpada testuinguru batzuetan esaldiak eragiten duen efektu pragmatikoa; inplikatura gisa sortua.

Beraz, esango genuke zeregin bererako erabiltzen direla azpial honetan aipatutako bi elementuak (‘omen’, ‘esan du(te)’) eta 5. atalean ekarritako komatxoak: beste batek esana ekartzeko. Nolanahi dela, bereizi bezala, komatxoekin hitzez hitz ekartzen du hiztunak besteak esandakoa; beste biekin, berriaz, bere ikuspegira egokituta, indexikoak egokituta. Hori dela eta, elkarrekin konbinatzeko modukoak dira hirurak. Hori bai, betiere kontuan izanda aldeak dituztela, eta bakoitzak bere ezaugarriak dituela erabileran; ezin direla ordezkotzat erabili.

## 6. ‘Omen’en edukia

Aurreko atalean esan dugunez, honako hau da ‘omen’ duen perpaus baten esanahia, edo perpaus horren esaldi guztiek batean duten *eduki semantiko minimoa*, proposatzen dugunaren arabera:

( $M-S_{omen}$ ) HIZTUNA EZ DEN BESTE(REN) BATEK ESANA DA  $p$  (edo OMEN- $p$ ).

Eta 4.2. atalean ikusi dugun bezala, Griceren ildoari jarraiki, bi gauza egin behar dira halako perpausaren esaldia eginez hiztunak esandakoa mugatzeko: (i) anbiguotasunik balego, anbiguotasuna ebatzi; eta (ii) testuinguruaren mendeko adierazpenen erreferentziak finkatu.

(i) Anbiguotasuna ebazteko,  $p$  ‘omen’duna den ala ez erabaki behar da. Izan ere, ‘omen’ iteratzerik ez dagoenez, hainbat bitarteko egon daiteke jatorrizko hiztunaren eta hiztunaren artean; eta, horrela,  $p$  bigarren edo hirugarren eskukoa, edo jatorri indeterminatukoa izan daiteke<sup>19</sup> (Aikhenvald 2004, 178-179 or.; Faller 2002, 4-10 or.). Batek dioenean,

(30) «Fedek mendiak mugitzen omen ditu.» (*Berría*, 2006-02-10, 37 or.)

ezin jakin daiteke zenbat hiztunengandik pasatua den, auskalo zenbat ahotatik igarota den.

Batzuetan, halere, garbi dago bigarren eskuko informazioa dela, eta jatorrizko hiztuna zehaztuta dagoela: batek zerbait esan du, eta hiztunak ari entzundakoa dakar ‘omen’en bidez. Esaterako:

<sup>19</sup> Eztabaidagarria izan liteke fenomeno honi ‘anbiguotasuna’ ala ‘indeterminazioa’ esan behar zaion. Baina ez gara horretan sartuko.

- (31) Fernando Gonzalez urte askoan bizi izan da Mendelun, eta han egiten du lan. Hegazkinek ez diote sekula trabarik egin, eta entzun ere, gutxitan entzuten omen ditu. (*Berria*, 2006-02-28, 3 or.)

Kasu horretan, Fernando Gonzalez litzateke jatorrizko hiztuna.

(ii) Erreferentziak finkatzeari dagokionez, berriz, gure ustez, 'omen'ek ez du testuinguruaz baliatuz finkatu beharreko argumenturik adierazten; ez da adierazpen indexikoa. Hortaz, *S*-k leuzkakeen indexikoei legozkiekeen erreferentziak lirateke *p* mugatzeko finkatu beharreko erreferentzia bakarrak.

Anbiguitasuna ebazteko eta erreferentziak finkatzeko lanak eginda, tankera honetako proposizioa adierazten du hiztunak  $S_{omen}$  perpaus baten esaldia-  
ren bidez, gure proposamenaren arabera:

HIZTUNA EZ DEN BESTE(REN) BATEK ESANA DA *p*,

edo, bestela,

HIZTUNA EZ DEN BESTE(REN) BATEK ESANA DA OMEN-*p*.

Hala ere, hiztunak adierazitako proposizioa mugatzeko, ez dago zehaztu beharrik nor esana den *p* edo OMEN-*p*. Hori bai, litekeena da, testuinguru baliatuz, jatorrizko hiztuna zehaztugabea edo zehaztua den mugatzea; eta, zehaztua denean, identifikatu ere egin daiteke. Baina adierazitako proposiziotik harago joango litzateke hori: *aberastutako* proposizioa litzateke, Sperber eta Wilsonen (1986/1995) edo Carstonen (2002) hitzak erabiliz.<sup>20</sup> Dena den, esan bezala, ez da nahitaezkoa jatorrizko hiztuna zehaztea.

Aitzitik, ez da hala gertatzen beste batek esanaren berri emateko 'esan du' edo 'esan dute' aditzak erabiltzen direnean. 'S-ela esan du' tankerako perpaus batean '*pro*' izenordain singular bat dago. Adierazitako proposizioak indexiko bat dauka, beraz, eta horren erreferentzia finkatu beharra dago adierazitako proposizioa mugatzeko. 'Omen' duen perpausak ez bezala, '-ela esan du' duen perpausak artikulatu egiten du jatorrizko hiztunaren argumentua, eta identifikatu egin beharra dago adierazitako proposizioa mugatu nahi bada.

Horixe bera gertatzen da 'esan dute' eta 'esan didate' gisako aditzak dituzten perpausekin. Adierazitako proposizioa mugatzeko, '*pro*' izenordain pluralaren balio semantikoa edo erreferentzia finkatu beharra dago. Har dezagun ondoko adibidea:

- (32) Bihar euria egingo duela esan du.

<sup>20</sup> Zehatzago esanda, 'esprikatura' terminoa darabilte erreferentziazaleek hiztunak komunikatzen duen proposizio aberastuarentzat, 'esandakoa' baztertuz; haien ustez, Griceren 'esandakoa' kontzeptuak ez duelako nahikoa euskarri teorikorik. Nolanahi ere, onartzen dute artikulatu gabeko osagaien hautazko aberastearen eta artikulatutako osagaien nahitaezko asetzaren arteko bereizketa.



'*pro*' izenordain isil bat dugu perpausean sintaktikoki, artikulatuta: hirugarren pertsona singularreko izenordain ergatiboa, kasu honetan. 'Esan du' aditzak subjektu bat du isilean, nahiz eta ez dagoen zehaztuta.

Aitzitik, honako beste perpaus honetan,

(33) Bihar euria egingo omen du

ez dugu '*pro*' artikulaturik; ez du halakorik eskatzen 'omen'ek. Honakoa da, kasu horretan, 'omen'ek dakarren esanahia:

HIZTUNA EZ DEN BESTE(REN) BATEK ESANA DA BIHAR EURIA EGINGO DUELA.

Esanahi horrek ez digu eskatzen jatorrizko hiztuna zehaztea. Orainsu esan bezala, aukerakoa da aberastea; 'omen'ekin ez baitago jatorrizko hiztunaren argumenturik artikulatuta.

Egia da, hainbat kasutan, aditz horien erabilera 'inpersonala' ere egin daitekeela. Halere, gure ustez, hori ez da aditz forma horren balizko anbiguotasunaren ondorio, honako beste honena baizik: adierazitako proposizioaz edo esandakoaz gain, eta inplikaturak ere alde batera utzita, badira proposizio gehiago esaldiaren eduki izan daitezkeenak. Ikusi dugu izan ditzakegula proposizio aberastuak, perpausaren esanahi soilak eskatutako testuinguruaren ekarpenaz harago mugatzen direnak. Eta, kontrako bidean, adierazitako proposizioa erabat mugatu gabea izanagatik, hainbat proposizio izan daitezke hiztunak komunikatu nahi eta entzuleak igartzen dituenak. Hori izango litzateke 'esan didate' eta 'esan dute'ren erabilera inpersonalaren kasua: '*pro*' izenordainaren erreferentzia mugatu gabe duen proposizioa komunikatzen du hiztunak. Behin 'monoproposizionalismoa' arbuaiatuta (ikus Korta 2007), azalpen naturala dirudi horrek.

'Omen' duen perpausaren esanahiaren eta edukiaren definizioa emanda, zer esan, besteak beste, Euskaltzaindiak 'omen'i lotzen dion ziurgabetasunaren kontuarekin? 'Omen' erabilia, *p* proposizioaren egiari buruz batere ziur ez dagoela edo ez dagoela erabat ziur adierazten omen du hiztunak. Ba al du tokirik horrek gure azalpenean? Bai, badauka. Baina ez 'omen'ek duen esanahi gisa, ezta adierazitako proposizioari dakarkion eduki gisa ere; baizik eta 'omen' duten perpausen esaldiek ekar *litzaketen*, baina ekarri beharrik ez duten *inplikatura* gisa.

## 7. 'Omen' en inplikaturak

Hiztegiek hitzen esanahia ematen digutela kontuan hartuta, ziurtasunik gabeko 'jakintzarekin' lotzen du 'omen' en esanahia Elhuyar eta Elkarlaneanen hiztegiak ere (1994, 853-854 or.):

1 **omen**. *partik*. Hiztunak aditzera ematen duenaren ziurtasunik ez duenean, baina hala jakin duela adierazteko erabiltzen duen partikula. (...)

Baina ezin da esan ziurtasunik eza ‘omen’dun perpausen esanahia denik. Gure ustez, ziurtasunik eza ‘omen’dun perpausen esanahiaren osagaia balitz, perpaus ‘omen’dunen esaldi guztiek adieraziko lukete ziurgabetasuna. Haatik, bestelakoak dira kontuak adibideei erreparatuta.

Hasteko, nabarmentzeko modukoa da ez dagoela batere garbi hainbatetan ziurtasunik ezaren adibide gisa ematen dituztenak halakoak direnik. Har dezagun beste hiztegi batek dakarren etsenplua:

2 hiztunak gauza baten ziurtasunik ez duenean, baina jendeak hala dioela adierazteko, aditz trinkoaren edo laguntzailearen aurre-aurrean jarririk, erabiltzen duen partikula: garai batean sorginak biltzen omen ziren koba hartan. Bide, ei. (Bostak bat 1991, 391-392 or.)

Ez dago batere garbi inork, «garai batean sorginak biltzen omen ziren koba hartan» esanda, ziurtasunik eza adierazi behar duenik. ‘Sorgin’<sup>21</sup> naturaz gaindiko ahalak dituen gizon edo emakume gisa ulertuta, behintzat, guk, behinik behin, ez genuke horren egiari buruzko ziurtasunik eza adieraziko, bere faltsutasunari buruzko erabateko ziurtasuna baizik.

Har dezagun beste adibide bat. Larraitzek larunbatero entzuten dio eguraldi iragarpena Pello Zabalari. Bera akordatzen dela, bederik, ez du hutsegite handirik egin Pello Zabalak. Otsailaren 18an honako hau entzun dio Pello Zabalari:

(34) «Etzi gogotik botako du euria.»

Hurrengo egunean, otsailaren 19an, biharamunerako planak egiten ari dira Larraitz eta Kepa. Eguraldi ona eginez gero, jai hartuko dute biek. Eguraldi txarra bada, GOGOAKo lanak aurrera ateratzeko hitzordua jarriko dute ILCLIn. Honakoa esan dio Larraitzek Kepari:

(35) «Bihar euria egingo omen du.»

Gure ustez, honako hau esan du Larraitzek esaldi horrekin:

BESTEREN BATEK ESANA DA *p*,

non *p* honako proposizio hau baita:

OTSAILAREN 20AN EURIA EGINGO DU DONOSTIAN.<sup>22</sup>

<sup>21</sup> Ikus Sarasolak (1996) ematen duen definizioa: «sorgin. iz. (1576; xorgin \*1562). Herri sineskeriaren arabera, deabruarekiko hitzarmen baten ondorioz edo, indar ezkutuen jabe den gizona (batez ere ipar.) edo emakumea. Ik. Azti. (...)».

<sup>22</sup> Eztabaidagarria da Donostia Larraitzen eta Pello Zabalaren esaldiek adierazitako proposizioaren osagaia den ala ez; eta osagaia bada, artikulatua den (indexiko ‘ezkutu’ batek artikulatua, Stanleyren (2000) esapideaz baliatuz), eta artikulatu gabea bada, beharrezkoa den edo hautazkoa hori mugatzea, propozizio osoa izateko (Recanati 2004). Gure premietarako ez da beharrezkoa kontu hori hemen erabakitzea; beraz, euriaren iragarpenaren tokia, Donostia, proposizioaren osagaia dela onartuko dugu, argudio gehiagorik gabe.

Pello Zabalaren irati-iragarpenei Larrantzek dien leialtasuna eta sinesgarritasuna ezagututa, Kepak antzeman dezake 'beste hori' Pello Zabala dela zehazki; eta, hala, Larrantzek adierazitako proposizio aberastua ulertu:

PELLO ZABALAK ESANA DA OTSAILAREN 20AN EURIA EGINGO DUELA DONOSTIAN.

Proposizio hori ulertuta, testuinguru horretan, honako beste hau inferi dezake erraz Kepak, Larrantzen inplikatura gisa:

OTSAILAREN 20AN LAN EGINGO DUGU LARRAITZEK ETA BOK.

Larrantzen esaldian ez da ziurtasunik ezaren aztarnarik topatzen. Eta komunikazio egoera normala da erabat.<sup>23</sup> Perpaus 'omen'dunen esanahiak ziurtasunik eza adieraziko balu nahitaez, (36) esango luke Larrantzek (35)en ordez, euskal hitzun gisa:

(36) «Bihar euria egingo du.»

Nolanahi ere, (35)ek adieraz dezakeen ziurgabetasun maila berbera adierazten du (36)k, gure ustez: etorkizun gertagarri edo kontingente baten egiri lotzen zaion ziurtasun maila bera. Ez gehiago, ez gutxiago. Larrantzek, (35) dioenean, ez du Zabalaren iragarpenari buruzko zalantzarik, baina hari dion begiruneagatik eta eguraldi iragarle gisa Larrantzek berak duen sinesgarritasunik ezarengatik, hain zuzen, garbi uzten du jatorrizko hitzuna ez dela bera.

Eman ditzakegu adibide argiagoak ere, non hitzunik esplizituki adierazten duen bat egitea edo erabateko ukatze ziorra. Hona hemen pare bat adibide:

(37) «Diplomaziarekin eta nazioarteko erakundeekin fidatu beharra dagoe la dio Fukuyamak bere liburu berrian, baina Nazio Batuen Erakundea ez omen da fidagarria. Ados.» (*Berría*, 2006-03-11, 5 or.)

(38) «Bere bizialdi osoan lehen aldiz, Garcia Marquezek ez du iazko urte osoan esaldi bakar bat ere idatzi. Inspirazio falta omen (...) Zergatik ez du idazten Garcia Marquezek? Ez, jakina, inspirazio faltagatik, baizik eta nekatua, aspertua, hustua sentitzen delako.» (*Berría*, 2006-02-10, 6 or.)

Zergatik lotzen dituzte, orduan, Euskaltzaindiak eta beste hiztegiak eta gramatikari batzuek 'omen' eta ziurtasun maila? Gure iritziz, badirelako inplikatura hori ekar dezaketen esaldi 'omen'dunak.

Hartu, adibidez, honako etsenplu hauek:

(39) a. «(...) ordun Larrantzen batzuk soñue jo omentzuen ortzak zabalduta. (...)  
b. nik eztakit ze jo zuen enon ikusi jotzen da... nei apaizak beak esantziñ emen Abaltziketan.» (ahozkoa)<sup>24</sup>

<sup>23</sup> Gerta liteke, baita ere, justu kontrakoa, Larrantz ez batere fidatzea Pello Zabalaren eguraldi iragarpenekin, Kepa horren jakitun izatea, eta bestelako inplikatura bat ulertzea: bihar eguraldi ona egingo du; hortaz, ez gara lanera joango. Ikus aurreraxeago datorrena.

<sup>24</sup> Asier Aizpuruak eta Larrantz Zubeldiak 2001ean egindako grabazioen transkripzioetatik hartuak dira ahozko adibideak.

- (40) a. «1.000 zigarroren gaineko zerga igota eta tabakoaren gutxieneko prezioa zehaztuta iritsiko omen da arazoaren soluzioa. (...)  
 b. Prezioak igoko diren ikuskizun dago. Prezioak igota arazoa konponduko den ere bai.» (*Berria*, 2006-02-11, 2 or.)

(39a) eta (40a) esaldietan, zalantza adierazten du hiztunak, ondoko (39b) eta (40b) esaldien bidez baieztatzen duen bezala; eta ez da inolako arazorik sortzen.

Kasu horietan, (a) esaldien inplikatura da ziurtasun maila, ezabagarritasun test azkar batek erakusten duen gisan. (39a) eta (40a)ren ondoren, esan dezakegu, hurrenez hurren, kontraesanik gabe:

Ez dut dudarik egiten hala izan zela, lehen ere hala jotakoak baitira.

Inork ez du dudarik egiten prezioak igoko direla, eta prezioak igota konponduko dela arazoa.

Ziurtasunik eza inplikatura ez baina 'omen'en esanahia balitz, ezingo genuke halakorik esan; kontraesana litzateke.

Laburtuz, ziurtasunik ezaren gaineko hiztunaren jarrerari buruzko informazioa ez da esaldi 'omen'dunek *adierazten duten* proposizioaren parte, baizik eta esaldia eginez *aditzera eman daitekeen* inplikatura.<sup>25</sup> Ondorio horixe bera ateratzen du Martina Fallerrek ere, 'omen'en antzekotasun dezente duen *cuzco* kitxuako *-si reportative* atzizkia ikertu duenak:

[‘-si’k] Ez du kodetzen hiztunak uste duen edo ez txertatutako proposizioa egiazkoa edo posibilitatea den. Adieraz daiteke ziurtasun maila bat, beste markatzaile batzuk erabiliz, edo testuinguruaren bidez inplikaturaz, baina ez du *-sik* kodetzen.<sup>26</sup> (Faller 2002, 23 or.)

'Omen'dun perpausaren esanahiak ez du, beraz, hiztunaren ziurtasun mailaren adierazpenarekin beharrezko loturarik.

## 8. 'Omen'en indarra

Gogora dezagun zer egin dugun 'omen'en esanahia eta erabilera argitzeko orain arte egindako bidean.

Alde batetik, hiztegi elebidunek emandako 'dirudienez' adiera bazterrean utzi beharra aldarrikatu dugu; eta alde batera utzi beharra, berebat, 'omen'i lotutako ziurtasun mailei buruzko balizko adierazpena. Bestetik, Mitxelenaren

<sup>25</sup> Are zehazkiago, 'elkarrizketa inplikatura partikularizatu' motakoa da, gure ustez. Baina beste baterako utziko dugu hori.

<sup>26</sup> *It does not encode whether or not the speaker believes the embedded proposition to be true or a possibility. A degree of certainty can be expressed by using additional markers, or be implied by the context, but it is not encoded by -si.* (Faller 2002, 23 or.)

eta Sarasolaren definizioetatik abiatutako ildoak zehaztu edo zorroztu dugu, ondoko kontzeptuon arteko bereizketa eginez: (i) perpaus 'omen'dunen esanahia, (ii) perpaus 'omen'dunen esaldien edukia (edo edukiak), eta (iii) esaldi horien balizko elkarrizketa inplikaturak. Nolanahi dela, gaude aurrerago egin dezakegula oraindik Mitxelenaren eta Sarasolaren definizioak zorroztean. Baina, hori egin aurretik, guk hartutako bideari izkin egiten dion bidezidorra hartu behar dugu kontuan; beste bide batetik eraman gaitzakeen bidezidorra.

4. atalean esan dugunez, bi gauza bereizten dituzte bai Mitxelenak, bai Sarasolak. Alde batetik,

— hiztunak adierazten duen proposizioa (beren hitzetan, «adierazten den informazioa» edo «hiztunak aditzera ematen duena», hurrenez hurren)

eta, bestetik,

— 'omen'en erabilerarekin, proposizio horri gehitzen zaiona (hori nola jakin duen, zeinen bidez jakin duen).

Berehala sortzen da galdera kontuok Searleren (1969) hizketa-ekinzen teoriaren arabera aztertuta: zeri egiten dio ekarpena 'omen'ek, hizketa-ekinzen proposizio edukiari ala ilokuzio indarrari? Guk egindako bideak lehenengo aukeratik jotzen du. Dena den, hor da bigarrena ere. Eta, hain zuzen, horixe hautatu du Martina Fallerrek 'omen'en antz handia bide duen cuzco kitxuako '-si' partikula enklitikoaz aztertzeko.

Horixe ikusiko dugu, beraz, atal honetan, nola aplikatu geniezaiokeen gure 'omen'i hark '-si'ri buruz egindako proposamena. Horretarako, hizketa-ekinzen teoriaren tresna nagusietako batzuk azaldu beharko ditugu lehenbizi, labur bada ere.<sup>27</sup>

Bi osagai bereizten ditu perpaus baten esaldian teoria horrek: esaldiaren ilokuzio indarra (*F*) eta proposizio edukia (*p*). Esaldiaren, hizketa-ekinzen izaerari buruz ari da ilokuzio indarra: zer egiten den, zerbait baieztu, ziurtatu, iradoki, kabalak egin, galdetu, agindu, eskatu, promes egin, hitz eman, zin egin, eta abar...

Proposizio edukia, berriz, egiten denaren edukiaz ari da. Hala, proposizio eduki bat eta bera izan dezakete ilokuzio indar desberdina duten esaldiek. Esate baterako, Larraitzek esandako

(41) «Etorriko naiz.» (promesa)

eta Kepak esandako

<sup>27</sup> Aurrerago gure azterketak Fallerrekin berarekin eztabaidatu ahal izatea espero dugu. Oraingoz, bere tesian (Faller 2002) eta ondoko artikuluetan (Faller 2003, 2006a, 2006b) dioenean oinarritu gara alderatzeko. Ikus beste proposamen batzuk ere: Vanderveken (1990), Waltereit (2001), eta Ifantidou (2001), Fallerrek aipatzen dituenak (2002, 200-204 or.).

- (42) «Larraitz etorri da.» (baiezpena)  
 (43) «Larraitz, etor zaitez!» (erregua)  
 (44) «Larraitz etorriko al da?» (galdera)

horiek guztiek proposizio bera dute; hots,

LARRAITZ ETORRI,

nahiz eta ilokuzio indar desberdinak izan.

Bost taldetan sailkatzen dira ilokuzio indarrak, hizketa-ekintzaren ilokuzio xedearen arabera; hitzunak ilokuzio ekintza egitean duen gutxieneko asmoaren arabera, alegia (Searle 1969; Vanderveken 1990, 1991):

- 1) Baierakoak: gauza-egoera bat errealtzat errepresentatzean dautza. Baiezpenak eta deskribapenak, adibidez: «Euria ari du».
- 2) Konpromisozkoak: geroko ekintza batekiko hitzunaren konpromisoan dautza. Promesak dira adibide garbienak: «Bukatuko dut lana biharko».
- 3) Zuzentzekoak: entzuleak zerbait egin dezan saiatzean dautza. Aginduak eta eskaerak, esaterako: «Buka ezazu lana biharko, mesedez».
- 4) Agerbidezkoak: gauza-egoera bat sortzen duen ekintza egitean dautza, norbera ekintza hori egitean errepresentatzearen bitartez. Performatiboak: «Honen bitartez, zin egiten dut ez nuela hori egiteko asmorik».
- 5) Adieraztekoak: hitzunaren gauza-egoera bati buruzko proposizio-jarrearen adierazpenean dautza. Nahi edo desio bat adieraztea, esate baterako: «Pozten nau zu berriz topatzeak».

Horiek horrela, bi aukera sortzen dira hitz edo hizki batek duen esanahia teoria horren arabera aztertzen dugunean: hizketa-ekintzaren zein osagairi egiten dio ekarpena delako hitzak edo hizkiak, ilokuzio indarrari ala proposizio edukiari, alegia, egibaldintzei?<sup>28</sup>

Goiko adibideetan, garbi dago 'Larraitz'ek, 'etor'ek eta 'pro'k proposizio edukiari egiten diotela ekarpena, eta ez ilokuzio indarrari. Aditz jokatuari dagozkion morfemak, 'al' partikula, doinua edo entonazioa eta bere zeinu grafikoak, berriz, ilokuzio indarra markatzeko tresna dira.<sup>29</sup> Eta zer esan 'omen'ez?

Fallerren aztermodua gurera ekarrita, argia litzateke haren erantzuna: ilokuzio indarrari eragiten dio «omen»ek, eta ez proposizio edukiari. Azter-

<sup>28</sup> Teoria honetan ez dago, besterik gabe, esaldi edo hizketa-ekintza baten egibaldintzez hitz egin beharrik, egiazkoak ala faltsuak izan daitezkeen esaldiak aztertetik harago baitoa. Baierako esaldiak badira egiazko ala faltsu. Baina konpromisozkoak ez; izan ere, promesak ez dira egiazko ala faltsu, promesak bete egiten dira edo ez. Eta aginduak ere antzera. Horregatik, 'asetze baldintzez' hitz egin behar da, oro har hitz egitekotan. Nolanahi ere, 'omen', printzipioz, baierako hizketa-ekintzen berri emateko soilik erabil daitekeenez, ñabardurak ez du garrantzirik guretzat. Ikus, hala ere, 8.1. atala.

<sup>29</sup> Hau guztia, esku artean dugun eztabaidak uzten digun bezain simple ari gara azaltzen. Jakina, teoria honek baditu hainbat xehetasun eta zailtasun, alde batera uzten ari garenak (ikus Korta & Perry 2007, teoria honetako proposizio-edukiari buruzko eztabaidarako).

bide horren arabera, proposizio eduki bera lukete (45)ek eta (46)k; hau da, egibaldintza berberak.

- (45) «Euria ari du.»  
 (46) «Euria ari omen du.»

Ilokuzio indarra aldatuko litzateke. Fallerren arabera, (45) baiezipena litzateke; (46), berriz, *aurkezpena*. Hain zuzen, ‘aurkezpena’ ilokuzio ekintza berria proposatzen du Fallerrek ‘-si’ aztertzeko, nahiz eta jabetzen den arazoak dakarzukiola (Faller 2002, 199-204 or.). Dena den, horiek kontuan hartu gabe ere, garbi behar luke, honezkero, gure proposamena ez datorrela bat ondorio horrekin. Gure ustez, oinarritzko intuizioekin bat egiten duten honako bition aurka egiten du Fallerren erantzunak:

- (46) (45) bezain baiezipena da.
- Desberdina da (46)k eta (45)ek baieztutakoa, desberdinak dira bakoitzaren egibaldintzak. (45) egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin euria ari badu (esaldiaren denboran); (46) egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin hitzuna ez den besteren batek esana bada euria ari duela.

Fallerrek berak<sup>30</sup> damaigu ikuspegi horrek hizketa-ekintzen teorian lukeen itxura:

«Euria ari omen du.»

$q = \text{«Euria ari du»}$   
 $p = \exists s_2 [\text{Assert}(s_2, q) \wedge s_2 \neq s]$ <sup>31</sup>  
 ILL = ASSERT( $p$ )

Eta zintzotasun baldintza eman behar izanez gero, ez dago arazorik, gure ustez, esateko hitzuna ( $s$ ), zintzo hitz egitekotan,  $p$  proposizioa (bera ez den besteren batek esana dela  $q$ ) uste izan behar duela; esan nahi baita,

$\text{SYNC} = \text{Bel}(s, p)$

Fallerrek, ordea, baztertu egiten du analisi hori. Haren ustez, esanahi hori ez baita proposizioaren parte. Erronkan edo zalantzan jartze testa (*challengeability* testa) esaten diona darabil ‘-si’k zeri eragiten dion ikusteko. ‘Omen’ekin aztermodu berari jarraituz gero, erakutsiko luke ‘omen’dun perpausaren esanahiak ez diola ekarpenik egiten adierazitako proposizioari. Ikus dezagun zer-

<sup>30</sup> Cuzco kitxuako ‘-si’ enklitikoarentzat ematen duen formulazioa da, ‘omen’i egokituta.

<sup>31</sup> Fallerrek dio ‘-si’ren jatorrizko hitzuna ezin dela izan ez hitzuna bera, ez hitzuna aurrean duen laguna, entzulea; hirugarren pertsona izan beharra dauka, bere ustez. Guri ez zaigu iruditzen ‘omen’ek eragozpenik duenik jatorrizko hitzuna bigarren pertsona izateko. Hori dela eta, egokitu egin dugu Fallerren formulazioa: ‘ $p = \exists s_2 [\text{Assert}(s_2, q) \wedge s_2 \notin \{h, s\}]$ ’, non  $h$  entzulea den,  $s$  hitzuna, eta  $s_2 q$  proposizioa adierazi duen hitzuna. Fallerrek ‘-si’ri buruz dioenari jarraiki, ezinezkoa litzateke ondokoaren gisako adibidea. Larraitzek honako hau esan zion atzo Kepari: «Biharko bukatuko dut lana». Biharamunean, Kepak Larraitzi: «Gaurko bukatu behar omen zenuen lana». Guk, ordea, ez diogu inolako arazorik ikusten etsenplu horri.

tan datzan testa: hartu 'omen' duen esaldi bat, eman dezagun (46). Eman horri ondoko hiru erantzunak.

- a: «Egia da hori?»
- b: «Hori ez da egia.»
- c: «Egia.»

Eta ikusi zeri buruzko oharrak diren a, b, eta c;  $q$  edo  $p$  proposizioari buruzkoak:

- $q$ : EURIA ARI DU
- $p$ : HIZTUNA EZ DEN BATEK ESANA DA  $q$

Fallerrek '-si'ren gainean egiten duen azterketaren arabera, argi legoke. Erantzun horiek  $q$  proposizioari buruzkoak direla soilik uler daiteke. Gure us-tez, ordea, ez dago batere garbi 'omen' en kasuan. Jakina, interpreta daitezke hala. Aitzitik, izan daitezke  $p$ -ri buruzkoak ere; zilegi baitira, berebat, honako beste erantzun hauek:

- a. «Egia al da hori? Non aditu duzu?»
- b. «Hori ez da egia. Ez dizu inork esan, zuk asmatu duzu.»
- c. «Egia. Nik ere aditu dut.»

Gure iritzian, testuingurua zein den, eskuragarriagoa izango da interpreta-tazio bat edo bestea.

Antzekoa gertatzen da 'omen' ez baina 'esan' edo proposizio jarrera adie-razteko beste aditzen bat duten esaldietan. Hartu, esaterako:

- (47) «Esan dute euria ari duela.»
- (48) «Uste dut euria ari duela.»
- (49) «Badakit euria ari duela.»

Horiek a, b eta c-rekin erantzutean, zertan ari gara, (i) euria ari duela zalan-tzan jartzen, alegia, horrekiko desadostasuna agertzen edo horrekin bat egiten edo (ii) hala esan dutela, hala uste dudala edo hori badakidala adierazten? Ezin erabaki testuingurua gehiago ezagutu gabe, baina gaude biak direla zilegi.

'Omen'era itzuliz, gogoratu behar da jokaera berezia duela ukazioak 'omen'ekin. Batek (46)ri a, b eta c erantzunekin ez baina 'ez' soil batekin ihardetsiz gero, joera egon daiteke  $q$ -ren (euria ari du) ukazio gisa hartzeko, normalean; eta ez  $p$ -ren (hiztuna ez den batek esana da  $p$ ) ukazio gisa. Bai-na iruditzen zaigu balitekeela horrek 'omen' en eta 'ez' en arteko harreman sintaktiko-semantikoarekin izatea zerikusi handiagoa, 'omen'ek proposizio edukiari egindako ekarpenarekin baino. Izan ere, badirudi ukazioa eliptikoki interpretatuz gero, beti hartuko duela harekiko eragin eremu zabala 'omen'ek. Esate baterako, hartu horrelako elkarriketa bat:

- (50) — «Euria ari omen du.»
- «Ez.»



Erantzuna eliptikotzat hartzen bada, aurreko perpausetik ‘kopiatu’ edo hartu behar da isilean utzitako materiala. Honakoa genuke, kasu honetan:

(51) Ez [euria ari omen du]

Baina horrek adierazitako proposizioa beti da

OMEN [EZ (EURIA ARI DU)]

alegia, ‘omen’ek ‘ez’ekiko duen eragin eremu zabalekoa, eta sekula ez

EZ [OMEN (EURIA ARI DU)]

Dena den, perpaus osoa hartuta ere, *q*-ren gaineko eragina soilik izaten segituko luke ukazioak; ukazioarekiko eragin eremu zabala baitu beti ‘omen’ek.

*Challengeability* testa, beraz, argudio ahula da ‘omen’ek ilokuzio indarrari eragiten diola erabakitzeke.

## 9. Beste bati entzuna (ez ikusia)

### 9.1. Baieztutako proposizioak eta baierako hizketa-ekintzak

Funtsezkoa da ‘BESTE(REN) BATEK ESANA DA *p*’ proposizioko ‘esana’ zentzu griecarrean ulertzea; hau da, esaldiaren edukiaren zentzuan. Eta, horren baitan, ‘omen’en ezaugarriak direnak direlako, ‘baieztutakoa’ren zentzuan ulertu behar da ‘esana’. *S* adierazpen perpaus batek baieztua behar du izan beste batek esandako *p* proposizioak; ez aginterazko perpaus batek agindua, galde perpaus batek galdetua, edo heia gora edo harridura perpaus batek adierazia. Hori horrela, *p*-k baieztutako proposizioa izan beharra daukala onartzeak eraman dezake bat pentsatzera, hizketa-ekintzen teoriara lerratuta, beste hiztun horrek egindako hizketa-ekintzak *baierakoa* izan beharra daukala nahi eta nahi ez.<sup>32</sup> Baina ezin da egin halako loturarik. Izan ere, jatorrizko hiztunaren hizketa-ekintza izan daiteke

(52) baierakoa: «Euria ari du»

(53) konpromisozkoa: «Bihar etorriko naiz»

(54) adieraztekoa: «Pozten nau zu berriz ikusteak» eta guk «omen»dun esaldi batekin eman horren berri:

(55) «Euria ari omen du»

(56) «Bihar etorriko omen da»

(57) «Pozten omen du ni ikusteak»

<sup>32</sup> Badirudi horixe gertatzen zaiola Fallerri (2002, 195-204 or.) ere, bere ‘aurkeztea’ hizketa-ekintzetan ‘assert’ hartzen baitu jatorrizko hiztunaren ilokuzio indar bakartzat. Bestelakoa litzateke ondorioa ‘assert’ hori ilokuzio indarraren izen gisa hartu ordez, ‘baieztu’ gure kontzeptu griecarrarentzat hartuz gero.

Horrek adierazten du, gure iritzian, 'baieztu' gricearra ez datorrela bat hizketa-ekintzen teoriako 'baierako' hizketa-ekintzekin.<sup>33</sup>

Nolanahi dela, hori argi utzita ere, baliteke hizketa-ekintzaren teoriak leak honako esatea aurreko adibide horiei buruz: «'omen'ek proposizio edukiari ez, baizik ilokuzio indarrari eragiten diola ikusten da hor». Izan ere, jatorrizko hitzunaren ilokuzio indarra bat bera da 'omen' duten esaldi horietan (baierako xedea, konpromisoak eta adieraztekoa dutenetan, hurrenez hurren): baierakoa edo, agian, Fallerren 'aurkeztea'.

Haatik, ondorio okerra litzateke hori ere, gure ustez; ilokuzio indarra aldatzea ez baitu 'omen'ek eragiten, ezpada hitzuna aldatzeak. Hizketa-ekintzaren teoriak ondo zehazten duenez, batek ezin du promes egin beste baten izenean, promesa egiazki edo faltsuki deskribatu baizik; izan ere, batek ezin du berea ez den gogo-egoera adierazi, ezpada beste baten gogo-egoera egiazki edo faltsuki deskribatu besterik ez. Konpromisoaz edo gogo-egoera adierazteaz den bezainbatean, hirugarren pertsonaren ikuspegia hartzeak eragiten du, hortaz, ilokuzio indarra aldatzea; eta ez 'omen'ek, gure irudiko. Horixe erakusten dute 'omen'ik gabeko gisa horretako esaldiek:

(58) «Euria ari du»

(59) «Bihar etorriko da»

(60) «Pozten du ni ikusteak»

(59)n eta (60)n ez dago promesaren edo poza adieraztearen aztarnarik.

## 9.2. 'Omen' eta zeharkako hizketa-ekintzak

Hizketa-ekintzaren teoriatik tiraka, gure definizioko 'esana/baieztutakoa' ren argibide gehiago eman dezakegu. Hizketa-ekintza zuzenak eta zeharkakoak bereizten dira; edo, hobeto esanda, hizketa-ekintza berean ekintza zuzena eta zeharkakoa egin daitezke aldi berean (Searle 1975). Hala, batek dioenean

(61) «Pasatuko didazu gatza?»

(62) «Surik ba al duzu?»

galdera egiten du zuzenean, baina eskatu ere bai, normalean; zeharka bada ere. Hurrengo adibideek erakusten duten moduan, ezin da eman hizketa-ekintza horien berri 'omen'dun esaldiekin; ez zuzenaren ez zeharkakoaren berri:

<sup>33</sup> Zalantzak ditugu 'agerbidezko' hizketa-ekintzekin. Gogoan izan aditz 'performatiboak' darabiltzaten esaldiak izaten direla horiek, normalean; esate baterako:

«Promes egiten dut bihar etorriko naizela.»

Zuzena al da horren berri honako gisa honetan ematea?

«Promes egiten omen du bihar etorriko dela.»

Zalantza handiak ditugu horren egokitasunaz. Baliteke esaldi performatiboek eragiten dituzten zalantzetan izatea jatorria duda horiek; izan ere, ez dago batere garbi baieztapena eta promesa egiten ote ditugun aldi berean, edo bietako bat zuzenean eta bestea zeharka, edo zer (ikus Searle 1989, Bach & Harnish 1992 eta Jary 2007).

(63) \*«Pasatuko omen diozu gatza?»/\*«Pasa omen iezaiozu gatza»

(64) \*«Surik ba omen duzu?»/ \*«Eman omen iezaiozu sua»

Lehenxeago eman dugu horren arrazoa; gogora dezagun, nolahi ere: jatorrizko hiztunak *baieztutako* proposizioa behar du 'omen'ek, ez galdetutakoa edo eskatutakoa. Halaxe esplika daiteke, berebat, honako kasu hau:

(65) «Hanka zapaltzen ari zara (niri).»

Zuzenean, baierako hizketa-ekintza da; eta zeharka, berriz, zuzentzekoa («Ken iezaiozu hanka hori gainetik»). Hori dela eta, esan daiteke

(66) «Hanka zapaltzen ari omen natzaio»,

ez, ordea,

(67) \*«Ken omen diezaiodala hanka gainetik.»

Baina, ez du guztia azaltzen ilokuzio indarrei buruz esandako horrek. Hartu, bestela, honako kasu hau. Batek esan du:

(68) «Itxura ederra daukate marrubi horiek.»

Zuzenean, baierako ekintza egin du hiztunak; eta zeharka, aldiz, adieraztekoa («Oraintxe jango nituzke»)<sup>34</sup> Aurreko azpiatalean esan dugunaren araber, badago ematerik adierazteko ekintza baten berri 'omen' erabiliz. Dena dela, ez adierazteko ekintza guztien berri. Izan ere, (68)aren kasuan berebat,

(69) «Itxura ederra omen daukate marrubi horiek.»

egokia den arren, ez dirudi horren zeharkako hizketa-ekintzaren berri honela eman dezakegunik:

(70) #«Oraintxe jango omen lituzke.»

Honako ondorio honetara gakartza horrek guztiak: perpaus 'omen' dunaren esanahiaz ari garenean ('beste' batek *esana* da *p'*), bazter batera geratzen dira *zeharka* adierazitako proposizioak. Zentzu horretan, beraz, zeharka adierazitako proposizioa ezin da inork *esandakotzat* hartu.

### 9.3. Implikaturen berri ematea

Hizketa-ekintzen teorian 'zeharkako' esaten dieten esaldi horiei eta 'omen'i' buruz atera dugun ondorioak honako beste kontu hau aztertzeraz garrantzitsuak orobat: eman al daiteke jatorrizko hiztunaren esaldiaren implikaturen berri 'omen'en bidez? Hartu berriz (20) adibidea: «Zer moduz dabil C lanean?» galderari, «Oraindik ez dute kartzelan sartu» erantzun dio B-k; eta, era horretan,

<sup>34</sup> txostengile batek esan digu ez ote den implikatura kasua. Eta baliteke. Beti ez baita argia implikaturen eta zeharkako hizketa-ekintzen arteko bereizketa. Edozein moduz ere, ez dio eragiten gure argudioari eztabaida horrek. Guk adierazi nahi dugu ezin eman daitekeela eduki horren berri 'omen'en bidez; izan zehar hizketa-ekintza, izan implikatura.

inplikatu du C-k ez duela lapurretarik egin. Argi dago esan genezakeela, B-ren erantzunaren berri emateko,

(71) «C ez omen dute kartzelan sartu oraindik»,

baina ez dirudi egokia litzatekeenik honako beste hau:

(72) #«C-k ez omen du lapurretarik egin.»

Berdin inplikatura kasu gehiago arakutzen badugu. Ondorio bera ateratzen da Griceren (1967) adibide ezagun batzuk hartuta.

Esaldia: «X jaunak ederki egiten du ingelesez eta zintzo betetzen ditu tutoreak esanak.»

Inplikatura: X JAUNA EZ DA ONA FILOSOFIAN.

Esaldi ironikoa: «X lagun fina da.»

Inplikatura: X EZ DA LAGUN FINA.

Esaldi metaforikoa: «Zu zara nire bihotzeko azukre koxkorra.»

Inplikatura: ZU MAITE ZAITUT GEHIEN MUNDUAN.

Alderatu kasu horien berri emateko 'omen'en erabilerak; batetik esaldiak adierazitako proposizioaren (jatorrizko hitzunak esanaren) berri emateko eta, bestetik, inplikaturaren berri emateko:

(73) «X jaunak ederki egiten omen du ingelesez eta zintzo betetzen omen ditu tutorearen esanak.»

(74) #«X jauna ez omen da ona filosofian.»

(75) «X lagun fina omen da.»

(76) #«X ez omen da lagun fina.»

(77) «Zu omen zara haren bihotzeko azukre koxkorra.»

(78) #«Zu maite omen zaitu gehien munduan.»

Sarreran esan dugu hitzun baten esaldia 'entzunez (eta ez ikusiz)' jasotako informazioa dela adierazten duela 'omen'ek, Sarasolaren arabera; eta, hain zuzen, inplikaturak entzun ez baina inferitu egiten dira. Horri jarraiki, esango dugu ezin erabil daitekeela 'omen' hitzun batek bere esaldiaz eragindako inplikaturen berri emateko.<sup>35</sup>

<sup>35</sup> Txostengile batek esan digu, ironiaren kasuan (hartu Griceren adibide ezagunetako bigarrena: «X lagun fina da.»), ezin eman daitekeela hitzunak esandakoaren berri 'omen'en bidez («X lagun fina omen da.»), baldin eta ez bada argitzen (tonuaren bidez, testuinguruan edo esplizituki adierazita) ironikoki esan duela. Ados gaude, esaldi ironikoaren berri emateko, «X lagun fina omen da» besterik gabe esatea nahasgarria izan daitekeela entzulearentzat, nolabait jatorrizko hitzuna ironikoa izan dela adierazi ezean. Ez da, nolana ere, kontu erraza azaltzea hitzunak, tonuarekin, nola adieraz dezakeen ironikoa bera ez baina jatorrizko hitzuna dela. Baina, edozein moduz ere, gure ustez, ez litzateke zilegi esaldiaren berri «X ez omen da lagun fina.» esanez ematea. Horretan ez gatoz bat txostengilearekin. Gure ustez, zilegi litzateke esatea «X ez bide da (jatorrizko hitzunen) lagun fina» edo «Badirudi X ez dela (jatorrizko hitzunaren) lagun fina», baina inola ere ez «X ez omen da (jatorrizko hitzunaren) lagun fina».

Eta gaude, horrekin, zorroztu egingo genituzkeela Sarasolaren eta Mitxelenaren definizioak. Mitxelenarenak bide ematen du inplikaturak ere 'omen' en bidez emateko, esaten baitu «adierazten den informazioa beste pertsona edo iturri batzuetatik datorrela»; baina ez du zehazten nola etorri behar duen informazio horrek. Sarasolak bai, ordea, «hiztunak aditzera ematen duenaren berri entzunez (ez ikusiz) jakin duela adierazteko erabiltzen duen partikula» baitio. Badirudi gehiago zehazten dituela kontuak, inplikaturak ez baitira entzuten; nahiz eta findu egin beharra dauden kontzeptuak, ikusi dugun bezala. Hortaz, esango genuke Sarasolaren definizioak bidea ixten diola inplikaturak 'omen' en bidez emateko aukerari.

Ikusi, ordea, zilegi dela, gure ustez, kasu horietan guztietan 'bide' erabiltzea:

- (79) «C-k ez bide du lapurretarik egin.»
- (80) «X ez bide da lagun fina.»
- (81) «X jauna ez bide da ona filosofian.»
- (82) «Zu maite bide zaitu gehien munduan.»

Hain zuzen, 3. atalean atera dugun ondorioa indartzera dator argudio hori ere: 'omen' eta 'bide' ez dira sinonimo.

## 10. Ondorioak eta aurrera begirakoak

Hiru gauza argudiatu nahi izan ditugu lan honetan.

- (I) '*parece (que)*' eta '*il paraît (que)*' gisakoak ez dira 'omen' en ordainak edo baliokideak, hainbat hiztegi adierazi bezala; ezpada 'bide' renak. Horretarako, hainbat adibide eman dugu, ikusteko 'omen' eta 'bide' ez direla sinonimo.
- (II) Orain arte 'omen' en gainean esandakotik Mitxelenaren eta Sarasolaren definizioak dira egokienak 'omen' en esanahia deskribatzeko. Nolana ere, zehaztu egin beharra daude. Horretarako, batetik, gaur egungo pragmatikako bereizketa nagusiak ekarri ditugu lehenbizi: esanahia vs. edukia eta esandakoa vs. inplikaturakoa. Eta segidan, 'omen' dun esaldien esanahia, edukia eta elkarrizketa inplikaturak bereizi ditugu horiei jarraiki, gure proposamena eginez. Bestetik, hizketa ekintzen teoria ekarri dugu; ilokuzio indarrari edo proposizio edukiari eragitearen arteko eztabaida gure aztergaira bildu, eta 'omen' ek zeri eragiten dion aztertu dugu.
- (III) Hiztunak ez du adierazten duen proposizioaren egiari buruzko ziurtasunik eza aditzera ematen 'omen' en bidez. Ikusi dugunez, hiztunak adieraz dezake zalantza 'omen' dun esaldiaren bidez. Edonola ere, ziurtasun gabezia hori ez da 'omen' en esanahia, hiztegi eta gramatika as-

kok esan bezala, baizik eta hiztunak bere esaldiarekin eragiten duen inplikatura.

Azken batean, 'omen'en esanahiaren eta erabileraren berri eman nahi izan dugu. Hain zuzen, Mitxelenaren eta Sarasolaren definizioen bidetik jo dugu, besteak baztertuz. Ildo horretan, zehaztu dugu proposizio bat hiztuna ez den beste batek esana edo baieztua dela baieztu duela 'omen' duen esaldiak. Horren ondorioz, honako hiru ezaugarri hauek xehetu ditugu 'omen'en erabilerari buruz:

- Ezin da erabili baieztutakoa ez den proposizio baten berri emateko; esan nahi baita, ezin erabil daiteke galde perpausen, harridura perpausen, aginterazko perpausen eta baldintzazko perpausen protasien bidez adierazitako proposizioen berri emateko.
- Ezin balia daiteke zeharkako hizketa-ekintzen berri emateko, nahiz eta hura baiarakoa izan.
- Ezin erabil daiteke esaldi baten inplikaturen berri emateko.

'Omen'i buruzko zenbait 'korapilo' askatu dugula uste dugu, baina ez dira, inola ere, hor bukatzen; hari mutur asko geratzen da zintzilik, aurrerago landu eta errematatzen saiatzeko. Horietako azterbide batzuk aipatuko ditugu bukatzeko.

Hasteko, iruditzen zaigu gehiago arakatu beharra dagoela 'omen'en eta 'bide'ren arteko harremana. Ikusi dugu ez direla baliokide. Esan dugu, baita ere, ezin dela eman inplikaturen berri 'omen'ekin; 'bide'rekin, aldiz, ez dirudi inolako arazorik dagoenik. Horrek iradokitzen du inferentzia bidez lortutako informazioa ekartzeko baliatzen dela 'bide', eta 'omen' beste batek esandakoa ekartzeko soilik. Gaur egungo pragmatikari begiratuta, ordea, gero eta nabar-menagoa da inferentziari aitortzen zaion lekua, esandakoaren identifikazioan; eta horrek ezbaian jartzen du hainbatek (Aikhenthaldek (2004), besteak beste) beste batzuen bidez jasotako informazioaren eta inferentzia bidezko informazioaren artean egiten duten bereizketa zorrotza.

Horrez gain, hariari tiraka segituz, ikustekoa litzateke, berebat, zer gertatzen den aditzaren gunean agertzen diren beste partikulekin ere; esaterako, 'ei', 'ote' eta 'al'ekin. Badirudi esanahi eta erabilera bera duten bi aldaera direla 'omen' eta 'ei'; 'ei' bizkaieraz bakarrik erabiltzen da, eta, gainerako euskalkietan, 'omen'. Aztertzekoa litzateke 'omen'ez esan dugun guztiak balio ote duen 'ei'rentzat. Ikusi egin behar, baita ere, aztermodu bera balia daitekeen bi partikula horien eta gainerakoen azalpen bateratua emateko.

Beste azterkizun bat genuke ikustea non sartzen den euskara partikulak aztertzeak argitara dakarren ebidentzialitatearen eta modalitate (epistemiko)aren arteko eztabaidan; esana eta inferentzia hizpide hartu ditugunez gero. Pil-pilean dago bien arteko harremanari buruzko eztabaida, eta lan asko dago horren gainean (ikus, besteak beste, De Haan 1999, Dendale & Tasmowski 2001, Faller 2002, Van

der Auwera & Plungian 2001). Bi eremu horietan sartzen diren elementuak dituzten hizkuntza gehiago aztertu beharra azpimarratzen dute horietako askok, ikuspegi osatuagoa izateko eta zehaztasun handiagoz hitz egiteko.

Bada beste puntu interesgarri bat ere. Entzuna/irakurria vs. ikusia bereizketa egin dugu. Aitzitik, ikus-entzunezko teknologia etengabe garatzen ari den honetan, ezin egin dezakegu halako bereizketa garbirik. Azterketa polita egin liteke azaltzeko nola ematen duten hiztunek horietako bakoitzean jasotakoaren berri, zein partikularen bidez. Nola ematen dute euskaldunek irratian entzundakoaren berri?<sup>36</sup> Eta egunkarian irakurritakoarena? Nola kontatzen dute telebistan ikusitakoa/entzundakoa? Eta internetez jasotakoa? (Aikhenvald 2004).

Nolanahi ere, beste lan batzuetarako utzi beharko ditugu egiteko horiek.

## Erreferentziak

- AIKHENVALD, Alexandra Y. (2004), *Evidentiality*. Oxford: Oxford University Press.
- ALTUNA, Patxi (1976), *Euskara, hire laguna! 1*. Bilbao: Mensajero.
- AZKUE, Resurreccion Maria (1905-1906), *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbao: dirección del autor; Paris: Paul Geuthner (1984ko edizioa, *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo: Euskaltzaindia).
- BACH, Kent & HARNISH, Robert M. (1992), «How performatives really work: A reply to Searle». *Linguistics and Philosophy*, 15, 93-110.
- BLASS, Regina (1989), «Grammaticalization of interpretive use: the case of *re* in Sisala». *Lingua* 79: 299-326.
- CARSTON, Robyn (2002), *Thoughts and utterances: the pragmatics of explicit communication*. Oxford: Blackwell.
- DE HAAN, Ferdinand (1999), «Evidentiality and epistemic modality: Setting boundaries». *Southwest Journal of Linguistics* 18: 83-101.
- DENDALE, Patrick & LILIANE TASMOWSKI (2001), «Introduction: Evidentiality and related notions». In Patrick DENDALE & Liliane TASMOWSKI (arg.), *Journal of Pragmatics* 33 (3): 339-348.
- ELHUYAR (2000), *Elhuyar hiztegia: euskara-gaztelania, castellano-vasco*. Usurbil.
- EUSKALTZAINDIA (1987), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II*. Bilbo.
- FALLER, Martina T. (2002), *Semantics and pragmatics of evidentials in Cuzco Quechua*. PhD thesis, Stanford University.
- FALLER, Martina (2003), «Propositional- and illocutionary-level evidentiality in Cuzco Quechua». In Jan ANDERSEN; Paula MENÉNDEZ-BENITO & Adam WERLE (arg.), *The Proceedings of SULA 2*. Amherst: University of Massachusetts, 19-33 or.
- FALLER, Martina (2006a), «Evidentiality below and above speech acts» (zirriborroa, argitaratzeko prestatzen, in Carita PARADIS & Lena EGBERG, *Functions of Language on evidentiality*).

<sup>36</sup> Adibide interesgarria eman digu txostengile batek, irratiz entzundako futbol partidu bati buruzkoa. Eginkizun utziko digu hori eztabaidatzea ere.

- FALLER, Martina (2006b), «The Cusco Quechua Reportative Evidential and Rhetorical Relations» (zirriborroa; 2007an argitaratua, in Peter AUSTIN & Andrew SIMPSON, *Linguistische Berichte on endangered languages*).
- GRICE, Paul (1967), «Logic and conversation». In D. DAVIDSON & G. HARMAN (arg.) (1975), *The Logic of Grammar*, Encino: Dickenson, pp. 64-75. Also published in P. COLE & J.L. MORGAN (arg.) (1975), *Syntax and Semantics 3: Speech Acts*, New York: Academic Press, pp. 41-58. Reprinted in P. Grice (1989), *Studies in the way of words*. Cambridge (MA): Harvard University Press, pp. 22-40.
- HADDICAN, Bill (2007), «Euskal perpausaren oinarrizko *espez-buru-osagarri* hurrenkerearen aldeko argudio batzuk». In I. ARTEATX, X. ARTIAGOITIA & A. ELORDIETA, (arg.), *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkera ezbaian*. Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua, 69-96 or.
- IFANTIDOU, Elly (2001), *Evidentials and Relevance*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- JARY, Mark (2007), «Are explicit performatives assertions?». *Linguist and Philosophy* 30: 207-234.
- KAPLAN, David (1989), «Demonstratives». In J. ALMOG, J. PERRY & H. WETTSTEIN (arg.), *Themes from Kaplan*. Oxford: Oxford University Press, 481-563 or.
- KORTA, Kepa (1998), «Begiratu zabala gaur egungo pragmatikari». *Gogoa* I-2: 195-224.
- KORTA, Kepa (1997), «Implicatures: Cancelability and Non-detachability». Report No. ILCLI-97-LIC-6. Donostia: ILCLI.
- KORTA, Kepa (2007), «Acerca del monoproposicionalismo imperante en Semántica y Pragmática». *Revista de Filosofía* 32 (2): 37-55.
- KORTA, Kepa & John PERRY (2007), «How to Say Things with Words». In SAVAS L. tsohatzidis (ed.), *John Searle's Philosophy of Language: Force, Meaning, and Thought*. Cambridge: Cambridge University Press, 169-189 or.
- LAFITTE, Pierre (1962), *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire). Édition revue et corrigée*. Bordeaux: Delmas (1979ko edizioa, *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire). Édition revue et corrigée*. Donostia: Elkar).
- LARRAMENDI, Manuel de (1729), *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villagordo Alcaráz (1979ko edizioa, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Donostia: Hordago).
- LARRAMENDI, Manuel de (1854), *Grammaire de la langue basque : d'après celle du P. Manuel de Larramendi intitulée El imposible vencido / par S.G. Blanc*. Lyon; Paris: S.H. Blanc et Cie.
- LHANDE, Pierre (1926), *Dictionnaire basque-français et français-basque: (dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin): d'après le dictionnaire basque-espagnol-français de R. M. de Askué et les Dictionnaires manuscrits des M. Harriet, M. Hiribarren et Pierre Foix / Pierre Lhande*. Paris: Beauchesne. (1970ko edizioa datekeena, *Dictionnaire basque-français et français-basque: (dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin): d'après le dictionnaire basque-espagnol-français de R. M. de Askué et les Dictionnaires manuscrits des M. Harriet, M. Hiribarren et Pierre Foix / Pierre Lhande*. Zarautz: Icharopena).
- MCCREADY, Eric & Ogata, Norry (2007), «Evidentiality, modality and probability». *Linguistics and Philosophy* 30: 147-206.
- MITXELENA, Luis (1987), *Orotariko euskal hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- MUGICA, Plácido (1981), *Diccionario vasco-castellano*. Bilbo: Mensajero.
- RECANATI, François (2004), *Literal Meaning*. Cambridge: Cambridge University Press.
- SARASOLA, Ibon (1996), *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa Gizarte- eta Kultur Fundazioa. (2. edizioa 2007an, Donostia: Elkar).



- SEARLE, John R. (1969), *Speech acts. An essay in the philosophy of language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- SEARLE, John R. (1975), «Indirect Speech Acts». In P. COLE & J. MORGAN (arg.), *Syntax and Semantics Vol. 3, Speech Acts*, Academic Press. (Berrargaratua in Searle, J., *Expression and Meaning. Studies in the Theory of Speech Acts*. Cambridge: Cambridge University Press, 1979, 30-57).
- SEARLE, John R. (1989), «How performatives work». *Linguistics and Philosophy* 12: 535-558.
- SPERBER, Dan & Deirdre WILSON (1986/95), *Relevance. Communication & Cognition*. Oxford: Blackwell.
- STANLEY, Jason (2000), «Context and Logical Form». *Linguistics and Philosophy* 23.4: 391-434.
- TORREALDAI, Joan Mari (1977), «Euskal liburugintza 1976an». *Jakin* 1: 124-129.
- VAN DER AUWERA, Johan & Vladimir A. PLUNGIAN (1998), «Modality's semantic map». *Linguistic Typology* 2: 79-123.
- VANDERVEKEN, Daniel (1990), *Meaning and Speech Acts, Vol. 1. Principles of language use*. Cambridge: Cambridge University Press.
- VANDERVEKEN, Daniel (1991), *Meaning and Speech Acts, Vol. 2. Principles of language use*. Cambridge: Cambridge University Press.
- VAN EYS, Willem J. (1873), *Dictionnaire Basque-Français*. Paris: Maisonneuve; London: Williams and Norgate.
- WALTEREIT, Richard (2001), «Modal particles and their functional equivalents: A speech-act theoretic approach». *Journal of Pragmatics* 33: 1391-1417.